

PIERRE HEME

Jon Foruria

Busturia

Bederatzi urte besterik ez nituen ama eta biok Frantziako herrixka batera joan ginenean. Garai gogorak zirela esan zidan. Ama lanik gabe geratu zen eta izeba Sophieren etxera joateko erabakia hartu zuen. Izeba Sophie aitaren arreba zen: emakume lodi, haundi, umore txarrekoa, ezkongabea eta berrogeita hamar urtekoa gutxi gora behera. Nere bizitzan bi aldiz soilik ikusi nuen. Bat bost urte nituenean, eta, bestea, aita hil zenean. Neukan izeba bakarra zen eta maitasun handirik ez nion.

Egia esan, ez zitzaidan askorik gustatu, baina ez genuen beste erremediorik. Astearte batean hartu genuen autobusa eta egun bi eman genituen bertara iristeko. Beno, bertara barik, herri-zeraman bidegurutzera. Hamar kilometro egin behar izan genituen oinez. Amak soinean maleta handi bat zeraman, eta nik esku artean aitak egindako pilota bat. Izugarri gustoko nuen pilota, nire jostailu bakarra zen eta aitak eginda-

koa. Izebaren etxera iritsi ginenean, izebak ez zigun harrera onik egin.

Lo egiteko sabaian jarri zigun ohe antzeko zer-bait. Afaltzera jeitsi nintzenean, ama eta izeba eztabaida batean zebiltzan. Ez dakit zer zioten, baina nire izena behin eta berriz errepikatzen zuten belarriak itxi eta izkina batean jesarririk denbora luze batez egon nintzen. Biharamu-nean esnatu nintzenean amaren falta bota nuen eta ohetik ziztu bizian altxatu nintzen. Izebari ama non zegoen galdetu nionean urruti joan zela esan zidan, sekula ez ninduela maite eta horrelakoak esaten zizkidan. Hala ere nik bane-kien hura gezur hutsa besterik ez zela, nik bane-kien amak izugarri maite ninduela. Oso urte gogorrak izan ziren niretzat. Behin eta berriz negarrari ematen nion eta behin eta berriro ama ikusteko irrikitan nengoen.

Hamar urte bete nituenean herriko arotzaren laguntzaile bihurtu nintzen eta gau eta egun buru belarri lan egiten nuen. Irabazitako dirua izebari eman behar izaten nion. Askotan zigortzen nin-duen izebak, eta, egia esan, ez nekien zergatik. Ez nuen ezer egiten. Amaren izena behin eta berriro errepikatzen zuen, baina beti txarrerako. Hamalau urte bete nituenean egoera jasanezina iru-ditu zitzaidan eta soinean nuenarekin Parisa alde egitea erabaki nuen. Hiru txanpon besterik ez nituen, nahikoa zen autobuserako txartela

ordaindu ahal izateko. Goizez irten eta gauetz iritsi zen autobusa Parisera. Kanean lo egiten nuen kartoi batzuen gainean eta jendeak zakarrontzietara botatzen zituzten hondakinen bidez elikatzen nintzen. Horrela hilabete batzuk eman nituen nire zortea erabat aldatu zen arte.

Lurrean txanpon bi aurkitu nituen eta inguruan zegoen gozoki dendara sartzea erabaki nuen. Txanpon biak mostradore gainean jarri nizkion eta pastel bat emateko esan nion dendako dendariari. Bere begirada erabat maitagarria zen eta dendariak pertsona baten bila zebiltzala eta ea bertan lan egitea nahi nuen esan zidan. Askorik pentsatu gabe baietz erantzun nien. Pastelak eta enkarguak alde batetik bestera eramatea izan zen nire lehenengo lana janari eta babesaren truke.

Izugarrizko maitasuna jaso nuen familia hartan, ez zuten seme-alabarik eta berehala seme-tzat hartu ninduten.

Ez nuen izebaren berririk sekula izan eta nahi ere ez. Ama, aldiz, handik 10 urtera aurkitu nuen Parisko kaleetan barrena oso ahul, gaixorik. Ospitalera eramane nuen; medikuak hilzorian zegoela erantzun zidan. Medikuek esandakoa entzundakoan negarrez hasi nintzen. Bere azken momentuak nirekin eman zituen eta nire familia berriarekin ere.

Poliki-poliki eta gogor lan eginez izugarrizko ospea hartu zuen Pierre Heme gozo dendak.

Gaur egun Parisko Pierre Hemeko jabea naiz.
Frantziako gozoki denda ospetsua da.